



Lander Martínez se retracta de su acusación contra el Movimiento Pro Amnistía

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 14/06/2017

Sin embargo, ahora no ha hecho el mismo ruido para corregir su “error” que cuando impulsó su campaña contra el Movimiento Pro Amnistía.

Lander Martinezek atzera egin du Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontra egindako akusazioan

Martxoaren 6an, Lander Martínez Podemoseko parlamentariak, berak pairatutako eraso fisikoa salatu zuen prentsaurreko batean eta gure mugimenduaren inguruko pertsona bati egotzi zion. Orduan esan zuen zeukaten “informazio zuzenaren arabera, ATaren inguruan mugitzen” zela erasotzailea. Laster atera ziren espainiar zein euskal alderdi sasi demokratik gertatutakoa gaitzestera, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontrako akusazioak egitera eta kriminalizatzerara.

Akusazio hori gertatu zenean, gainera, batzuek esan berria zuten gure mugimenduaren existentziaren muinean zegoena borroka armatuaren amaiera onartzen ez genuela zela, eta hainbat komunikabide gure aurkako kriminalizazio batean murgilduta zeuden.

Lander Martinezen salaketaren aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak adierazi zuen ez zeukala erasotzailea bere mugimenduko kidea zela pentsatzeko inolako zantzurik. Hurrengo egunerako, bagenekien ziurtasun osoz salaketa faltsu baten aurrean geundela, eta halaxe jakinarazi genuen Euskadi Irratiari eskainitako deklarazioetan.

Hurrengo egunetan, Lander Martínez bera batzartu egin zen Sortu alderdiaren ordezkari batzuekin eta ustezko erasotzailearen izena jarri zuen mahai gainean, Sorturi informazioa eskatuz. Sortuk berak beranduago egindako ikerketek ere argi uzten zuten salatutako pertsonak zerikusirik ez zuela erasoarekin. Hala ere, Martinezek aurrera jarraitu zuen bere salaketarekin.

Atzo izan zen salatutako pertsonaren kontrako epaiketa, eta Lander Martinezek ez zuen akusatua ezagutu bere erasotzaile gisa. Are gehiago, El Correo egunkariari egindako deklarazioetan esan du “datu okerrengeatik gidatu zela” salaketa egiteko orduan.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurka orduan bultzatutako kanpaina egindako zalaparta, ordea, ez du orain egin bere “okerra” zuzentzeko. Ez da prentsaurrekorik egon, ezta telebistan gaiari buruz mintzatzeko mahai-ingururik ere. Ez du esan ere nork eman zizkion datu okerrak, ezta ze intentzio izan zezakeen inork gure mugimendua eta erasoarekin zerikusirik ez zeukan pertsona bat ataka horretan jartzeko. Karrera politikoa egiteko denak ez du balio, eta Podemosi buruz orduan egin genuen salaketak indar handiagoa hartzen du orain

(

<http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/03/lander-martinezek-salatutako-erasoaren.html>).

Bukatzeko, gogorarazi nahi dugu hainbatetan gezurtizat kalifikatu gaituztela, eta hori gertatu den guztietan gure mugimenduak, bitarteko gutxi izanda ere, erakutsi duela gezurretan ibiltzetik urrun zintzotasun osoz aritzen dela, eta kasu honetan berriz gelditzen da hori agerian. Akatsak egingo ditugu, hanka sartze handiak batzuetan, mugimendu gaztea delako gurea eta ikasten ari garelako, baina zerbait argi utzi badugu honezkero, esaten duguna egiten dugula eta egiten duguna esaten dugula da.

Euskal Herria, 2017ko ekainaren 13a.

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

Lander Martínez se retracta de su acusación contra el Movimiento Pro Amnistía

El 6 de marzo, el parlamentario de Podemos Lander Martínez denunció en rueda de prensa la agresión física que había sufrido y acusó de cometerla a alguien del entorno de nuestro movimiento. Entonces dijo que "el agresor, por la información directa" de la que disponían, se movía "en la órbita de ATA". Pronto salieron los pseudo demócratas tanto españoles como vascos a condenar lo ocurrido, a verter acusaciones contra el Movimiento Pro Amnistía y a criminalizarlo.

En el momento en el que se produjo esa acusación, además, algunos acababan de decir que lo que había en el fundamento de la existencia de nuestro movimiento era que no aceptábamos el final de la lucha armada, y algunos medios de comunicación estaban inmersos en una campaña de criminalización en nuestra contra.

Ante la denuncia de Lander Martínez, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión declaró no tener ningún indicio para pensar que el agresor fuera miembro de nuestro movimiento. Para el día siguiente, ya sabíamos con total seguridad que estábamos ante una denuncia falsa, y así lo hicimos saber en declaraciones ofrecidas a Euskadi Irratia.

Los días posteriores, el propio Lander Martínez se reunió con una representación del partido Sortu y puso sobre la mesa el nombre del supuesto agresor, pidiendo información a Sortu. Las investigaciones realizadas después por Sortu también dejaban claro que la persona denunciada no tenía nada que ver con el ataque. Aún así, Martínez siguió adelante con su denuncia.

Ayer fue el juicio contra la persona denunciada, y Lander Martínez no reconoció al acusado como su agresor. Es más, en declaraciones al diario El Correo ha dicho que se guió por "datos erróneos" a la hora de hacer la denuncia.

Sin embargo, ahora no ha hecho el mismo ruido para corregir su "error" que cuando impulsó su campaña contra el Movimiento Pro Amnistía. No ha habido ruedas de prensa, ni

debates en televisión para hablar sobre el tema. Tampoco ha dicho quién le dio los datos erróneos, ni que intención podía tener nadie para poner en esa situación a nuestro movimiento y a una persona que nada tenía que ver con la agresión. No todo vale para hacer carrera política, y la denuncia que entonces hicimos sobre Podemos, cobra hoy más fuerza

(
<http://amnistiaaskatasuna.blogspot.com.es/2017/03/ante-el-ataque-denunciado-por-lander.html>).

Para terminar, queremos recordar que han sido varias las ocasiones en las que se ha tildado de mentiroso a nuestro movimiento, y en todas ellas hemos demostrado, a pesar de tener pocos medios, que lejos de decir mentiras actuamos con total sinceridad, y en este caso es algo que vuelve a quedar en evidencia. Cometeremos fallos, en ocasiones grandes meteduras de pata, porque el nuestro es un movimiento joven y que está aprendiendo, pero si después de todo hay algo que hemos dejado claro, es que hacemos lo que decimos y decimos lo que hacemos.

En Euskal Herria, a 13 de junio de 2017.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/lander-martinez-se-retracta-de>